

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Ingurumeneko Departamentuak tratamendu-plantetara bisitak antolatu ditu Birziklatzearen Munduko Egunean

Ospakizunak bat egin du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak lehenengo Hondakin Aldizkaria argitaratzearekin

Viernes, 13 de mayo de 2011

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta beirazko hondakinen eta aparatu elektronikoen hondakinen kudeaketari lotutako entitateek bisitak antolatu dituzte hurrengo hauek: Agoitzeko Eointegra aparatu elektrikoaren eta elektronikoen tratamendu-plantara, Trinitarioseko bilketa pneumatikoaren zentralera eta Góngora hondakinen tratamenduzentzora Iruñerrian, datorren maiatzaren 17an Birziklatzearen Munduko Eguna ospatuko da eta.

Horri lotuta,

[Izarbeibargo Mankomunitateak](#) hezkuntza-zentroetan edukiontzi bereziak banatuko ditu, ikasleen kontzientziarioa sustatzeko.

Bisitetan parte hartzeko, beharrezkoa da aurretik izena ematea,

[Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroan \(CRANA\)](#), 948140818 telefono-zenbakira deituta edo inscripciones@crana.org posta elektronikora idatzita. Bisita guztietarako doako autobusa jarri da. Autobus-geltokitik 10:00etan, 13:00etan eta 16:30ean aterako da.

Jarduera horiekin batera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak

[Hondakin Aldizkariaren lehenengo zenbakia](#) argitaratuko du, Nafarroan arlo horretan lan egiten duten entitateen jardueri buruzko informazioarekin.

Aldizkariaren edukiak

Aldizkariaren edukiak CRANA Fundazioak koordinatzen ditu, hondakinak kudeatzeko partzuergoen eta mankomunitateen eta

[Navarra de Medio Ambiente Industrial \(Namainsa\)](#) enpresa publikoaren lankidetzaz. On line edizioaz gain, Aldizkari berriaren 1.200 ale inprimatzea aurreikusi da, entitate kudeatzaileen artean banatzeko. Aleak bi urterik behin gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuko dira. Aldizkaria Nafarroako Gobernuak hondakinen tratamendurako entitate kudeatzaileekin dituen hitzarmenetan ezarritako komunikazio- eta sentsibilizazio-jardueren barruan sartzen da: Ecodirio, Plataforma Europea de Reciclaje, Ecosimelec, Ecofímica y Tragamóvil, Ecolec, Ambilamp, Fundación Ecotic, eta Fundación Ecolum.

Gaur egun, Nafarroa da Espainian materialak birziklatzeko tasarik handienak dituen komunitatea eta azken urteetan berreskuratutako

hondakinen ehunekoa hirukoiztu egin du. Beiraren kasuan, 2010. urtean 25,4 kilogramo berreskuratu ziren biztanle bakoitzeko. Era berean, 2009an edukiontzi urdinean kartoizko eta paperezko ontzi gehien utzi zuen komunitatea izan zen (50 kilo biztanle bakoitzeko).

Aldizkariaren lehen zenbakian, joan den abenduan onetsitako Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratua aztertu da. Plan horretan, hondakinen kudeaketarako irizpideak eta jarduera-estrategiak definitu dira 2020. urtera arte. Plan berriari ekarpenak egin zizkion informazio eta parte-hartze publikoaren prozesuak tratamendu aipagarria du aldizkarian. Horrez gain, Pedro Zuazo Nafarroako Gobernu Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendariari elkarrizketa egin zaio.

Gainerako edukiak lau gai handiren inguruan antolatzen dira: aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak kudeatzea, beiraren gaikako bilketa, hondakinen sorrerako prebentzio-ekintzak eta eraikuntza eta eraiste hondakinei eskainitako espazioak, besteak beste.